

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko uztailaren 18tik 24rako astea**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2020/07/18**

- **GORTE NAGUSIAK**

- **COVID-19 funtsa. - Ebazpena, 2020ko uztailaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19 funtsa sortzea arautzen duen eta hori banatzeko eta askatzeko arauak ezartzen dituen ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **2020-8093 xedapena - 1 or.****
- **Premiazko neurriak. -**
  - **Ebazpena, 2020ko uztailaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila ekonomia berraktibatzeke energiaren eta beste eremu batzuen arloko neurriak onesten dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **2020-8094 xedapena - 1 or.****
  - **Ebazpena, 2020ko uztailaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila enplegua suspertzeko eta lan autonomia eta sektore industrialaren lehiakortasuna babesteko neurri sozialei buruzko ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **Disposición 2020-8095 xedapena - 1 or.****
  - **Ebazpena, 2020ko uztailaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila berraktibazio ekonomikoa eta enplegua babesteko premiazko neurriei buruzko 25/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **2020-8096 xedapena - 1 or.****

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/657/2020 agindua, uztailaren 17koa, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak aldatzen dituena, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. [2020-8099 xedspena - 3 or.](#)
- **ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA. – Antolamendua.** - CIN/658/2020 agindua, uztailaren 13koa, e-Ciencia sarea (REC) sortzen duena. [2020-8101 xedapena - 4 or.](#)

## **2020/07/21**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – ANIMALIEN OSASUNA.** - APA/660/2020 agindua, uztailaren 16koa, Europar Batasunean araudi harmonizaturik ez duten animalia espezieen inportaziorako osasun baldintzak ezartzen dituena. [2020-8229 xedapena - 5 or.](#)

## **2020/07/22**

- **OGASUN MINISTERIOA. - COVID-19 funtsa.** - HAC/667/2020 agindua, uztailaren 17koa, COVID-19 funtsa sortzea arautzen duen eta hori banatzeko eta askatzeko arauak ezartzen dituen 22/2020 Errege Lege-dekretuaren 2. artikulua 2. paragrafoaren a) idatz-zatian ezarritako baliabideen zenbatekoaren behin betiko banaketa Autonomia Erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien artean nola egin zehazten duena. [2020-8294 xedapena - 5 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. –Ikasteko beka eta laguntzak.** - 688/2020 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 2020-2021 ikasturterako errenta- eta familia-ondarearen atalaseak eta ikasteko beka eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituena, eta ikasteko beka eta laguntza pertsonalizatuaren araubidea ezartzen duen abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretua partzialki aldatzen duena. [2020-8297 xedapena - 17 or.](#)
- **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - 689/2020 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Ogasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta ministerio sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. [2020-8298 xedapena - 45 or.](#)

## **2020/07/24**

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zergak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 21ekoa, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez gizarte-lankidetzazabaltzen den operadoreak abiadura handiko ontzi pneumatiko eta erdizurrunen operadoreen erregistro berezian inskribatzeko eskabideari dagokionez eta abiadura handiko ontzi pneumatiko eta erdizurrunen erabiltzeko

baimenari dagokionez, eta eskabidea telematikoki aurkezteko dokumentu normalizatua onesten den, hirugarrenen izenean telematikoki aurkezteko ordezkari itza egiaztatzeke. [2020-8449 xedapena - 5 or.](#)

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa.** - PCM/679/2020 agindua, uztailaren 23koa, Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsaren funtzionamendua ezartzen duen 2020ko uztailaren 21eko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. [2020-8450 xedapena - 11 or.](#)
- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Erregistro prozedurak.** - Ebazpena, 2020ko uztailaren 21ekoa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, COVID-19aren berragertzeak egonez gero, neurriak berriz ezartzea erabakitzen duena. [2020-8491 xedapena - 5 or.](#)

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**2020/07/21**

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA. - AGINDUA, 2020ko uztailaren 14koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza bereziak deitzen eta arautzen baitira COVID-19ak sortutako krisiaren eragina izan duten lan-sozietate eta lan elkartuko kooperatiba txikiak.** [2882 xedapena - 9 or.](#)

**2020/07/23**

- **OSASUN SAILA. - AGINDUA, 2020ko uztailaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez, batetik, Eibar, Tolosa eta Zarauzko udalerrietarako mantentzen baita 2020ko uztailaren 8 eta 16ko aginduen bitartez hartutako osasun publikoko neurri berezien indarraldia, bestetik, neurri horien eraginkortasuna Bergara eta Ermuko udalerrietara zabaltzen baita, eta, hirugarrenik, indargabeturik geratzen baitira Ordiziako udalerrirako hartutako neurriak.** [2920 xedapena - 2 or.](#)

## **A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2020/07/20**

- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA).** - Arabako zurgintza industriaren sektorearen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko erabakia. [1864 xedapena - 2 or.](#)

**2020/07/22**

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, uztailaren 14koa. Onestea Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez. [1958 xedapena - 3 or.](#)

## 2020/07/24

- **FORU ARAUAK.** - 11/2020 Foru Araua, uztailaren 15ekoa, 8/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 23koa, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriak, COVID-19rekin loturikoak. [2098 xedapena - 1 or.](#)

## B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

### 2020/07/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA** Erabakia, COVID-19a dela-eta, Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan, Ondare-Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan egokitzeko tributu-neurriak sartzen dituen Foru Dekretu Arauemailearen zioen azalpenean oker egindako erreferentzia bat zuzentzeari buruzkoa. [496 xedapena - 2 or.](#)

## G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

### 2020/07/22

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 6/2020 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 21ekoa, COVID-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarriari buruzkoa. [3622 xedapena - 6 or.](#)

## E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - BILBAO